

**Juan Martin Elexpuru Arregi**

**Euskalduntze berantiarra, Iruña-Veleiako grafitoak izutzeko mamua**

*La Euskaldunización tardía, el fantasma que pretende ahuyentar los grafitos de Iruña-Veleia*



**Juan Martin Elexpuru Arregi** (Ubera-Bergara, 1950). Filosofía eta Letretan lizentziatua eta Euskal Filologian doktorea. Idazlea eta itzultzailea. Ikastolako maisu izan zen lehenik eta gero Bergarako UNEDeko Euskara Departamenduan egin zuen lan urte luzez, eta azkenik Badihardugu elkartearen Ahotsak.eus proiektuan jardun du. Nagusi zein haur literaturako hainbat liburu idatzi du. Itzuli ere bai zenbait, Orwellen *Animal Farm*, Moliereren *Tartufe* eta *L'Avare* eta Makiaveloren *Il Principe* (2008), esaterako. Euskal hizkuntzaren arloan, *Bergara aldeko hiztegia* (2004), *Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak* (2009), *Euskararen aztarnak Sardinian?* (2017), *¿Qué está pasando con Iruña-Veleia?* (2018) eta *Euskararen ustezko kidesunak Italian eta Korsikan* (2021) argitaratu ditu. *Iruña-Veleia*, *gezurra ala egia* eta *Sardinia.eus* blogak kudeatzen ditu.

**Juan Martin Elexpuru Arregi** (Ubera-Bergara, 1950). Licenciado en Filosofía y Letras y doctor en Filología Vasca. Escritor y traductor. Fue profesor de ikastola, luego trabajó durante muchos años en el departamento de euskera de la UNED de Bergara y por último en el proyecto *Ahotsak.eus* de la asociación Badihardugu. Es autor de cuentos y novelas tanto para niños como para adultos, así como de dos libros de viajes. Ha traducido al euskera obras como *Animal Farm* de Orwell, *Il Principe* de Machiavelo o *Tartufe* y *L'Avare* de Moliere (2008). En el campo lingüístico ha publicado el diccionario *Bergara aldeko hiztegia* (2004) y los trabajos de investigación *Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak* (2009), *Euskararen aztarnak Sardinian?* (2017), *¿Qué está pasando con Iruña-Veleia?* (2018) y *Euskararen ustezko kidesunak Italian eta Korsikan* (2021). Dirige los blogs *Iruña-Veleia*, *gezurra ala egia* y *Sardinia.eus*.

## 10.1. Laburpena / Resumen / Abstract

### a) Euskalduntze berantiarra, Iruña-Veleiako grafitoak izutzeko mamua

Betidanik ziurtzat jo da baskoiak euskaldunak zirela, eta baita barduliarrek eta karistiarrek ere. Beroiez eta autrigoiez zalantza gehiago egon da, eta izan da lurralde mistoak zirela eta zeltak eta euskaldunak norgehiagoka zihardutela iradoki duenik ere, erromatarrek lurralde horiek inbaditu zituztenean.

Hau izan da, gutxi gorabehera Barandiaran, Caro Baroja, Tovar, Mitxelena eta abarren mapa klasikoa. Dena dela, 1927an Adolf Schulten historialari alemanak iradokitzen du Baskoiak, inperio erromatarren erorketa probestuz, mendebaldera jo zutela eta Barduliarren eta Karistiarren lurraldeez nagusitu zirela.

Gomez Moreno, Sanchez Albornoz eta beste batzuek interpretatuko dute tribu horiek ez zirela euskaldunak, lurralde horietako epigrafia erromatarrean izen euskaldunak ez dela agertzen argudiatuz. Hauek izango dira “Baskoitze berantiarraren” teoriaren gurasoak.

Teoria minoritarioa, garrantzi txikikoa mundu akademikoan. 2011an teoria berpizten da eta beste salto bat egiten du: “Baskoiak ere ez ziren euskaldunak”. Hegoaldea akitaniarrek euskaldundu omen zuten Goi Erdi Aroan. Hori dio Joseba Abaituak eta Mikel Unzuetak idatziriko txostenak, eta Alberto Santanak zuzendutako dokumentalak 2014an.

“Euskalduntze berantiarraren teoria”. Eskaintzen dituzten frogak, teoria klasikoaren berdintsuak: ez omen dago euskararen presentzia sendorik garai hartako epigrafian eta toponimian. Kasualitatea, apur bat lehenago, 2008an, faltsutzat joko ditu Batzorde batek Iruña-Veleiako grafito bereziak, tartean euskarazko hitzak eta esaldiak. eta nahiz eta batzordekideen txostenetan ez den euskalduntze berantiarra zuzenean aipatzen, sare sozialetan presentzia handia du gaiak. Eta argudiaketa oso sinplea da: Araban, EH mendebalde osoan bezala, ez bazen euskaraz egiten, nola agertuko da hainbeste euskara Iruña-Veleian? Beraz, grafitoak faltsuak dira.

Martin Almagro Gorbea, Real Academia de la Historia-ko “Anticuario perpetuo”a, izango da aldarrikatzaile nagusienetakoa. Argitu behar ez dagoela agiri historikorik, aztarna arkeologikorik edo bestelakorik akitaniarren edo baskoien inbasio bat iradokitzen duenik. Gainera gogoratu behar da hilarri eta ara ugari agertu dela Hegoaldean euskarazko izenekin, gutxienez badira hogeit Mendebaldean (gehi Iruña-Veleiako 50 grafito) eta beste berrogei bat Nafarroan, Sorian eta Aragoian. Irulegiko Eskua, azken aurkikuntza. Toponimian ere ugari dira euskarazko leku-izenak Mendebaldean zein Ekialdean.

## **b) La Euskaldunización tardía, el fantasma que pretende ahuyentar los grafitos de Iruña-Veleia**

---

Desde siempre se ha creído que los Vascones eran euskaldunes, lo mismo que Várdulos y Caristios. Han existido más dudas sobre Berones y Autrigones, y se ha solido sugerir que podrían ser comunidades mixtas, y que celtas y vascos competían en estos territorios cuando se consumó la invasión romana.

Este era a grandes rasgos el pensamiento de Barandiaran, Caro Baroja, Tovar, Mitxelena, etc. Sin embargo, en 1927, el historiador alemán Adolf Schulten sugiere que los Vascones, aprovechando la caída del Imperio Romano, se dirigieron hacia el oeste y se adueñaron de los territorios de Várdulos y Caristios. Gómez Moreno, Sánchez Albornoz y algunos más llegan a la conclusión de que estas tribus no eran de habla vasca, argumentando que no aparecen nombres vascos en la epigrafía romana de dichos territorios. Estos serán los padres de la teoría de la "Vasconización tardía".

Teoría muy minoritaria, a la que se concedía poca importancia en el mundo académico. Pero en 2011 cobra impulso y da un nuevo salto: Los Vascones tampoco eran de habla vasca. El sur de los Pirineos fue euskaldunizado en la Alta Edad Media por los Aquitanos. Es la tesis de Joseba Abaitua y Mikel Unzueta, difundida y popularizada por el documental de Alberto Santana de 2014.

La teoría de la “Euskaldunización tardía”. Las supuestas pruebas que ofrecen son las mismas de la teoría clásica: casi nula presencia de euskera en la epigrafía y toponimia de esos territorios. Casualmente, poco antes en 2008, una Comisión declaró falsos los “grafitos excepcionales” de Iruña-Veleia, entre los cuales hay muchas palabras y frases en euskera. Y aunque la euskaldunización tardía no aparece directamente en los informes de los miembros de la comisión, el tema tuvo fuerte presencia en las redes sociales. El argumento es muy sencillo: si en Álava, como en todo EH occidental, no se hablaba euskera, ¿cómo va a aparecer tanto euskera en Iruña-Veleia? Por lo tanto los grafitos son falsos.

Martín Almagro Gorbea, "Anticuario Perpetuo" de la Real Academia de la Historia, se convertirá en uno de los principales valedores de la teoría. Cabe aclarar que no existen documentos históricos, ni restos arqueológicos ni nada que sugiera una invasión por parte de Vascones o Aquitanos. Cabe recordar también que en Hegoalde ha aparecido un gran número de aras y lápidas con nombres vascos, al menos una veintena en el Oeste (más los 50 grafitos de Iruña-Veleia) y otras cuarenta en Navarra, Soria y Aragón. La Mano de Irulegi ha sido el último descubrimiento. En lo que respecta a la toponimia, también son numerosos los nombres de lugar vascos tanto en el Oeste como en el Este de Hego Euskal Herria.

### **c) Late Euskaldunisation, the ghost that the Iruña-Veleia graffiti are trying to chase away**

---

It has always been believed that the Vascones were Basque-speaking, as were the Varduli and Caristii. There have been more doubts about the Berones and Autrigones, and it has often been suggested that they could be mixed communities, and that Celts and Basques were competing in these territories at the time of the Roman invasion.

This was, broadly speaking, the thinking of Barandiaran, Caro Baroja, Tovar, Mitxelena, etc. However, in 1927, the German historian Adolf Schulten suggested that the Vascones, taking advantage of the fall of the Roman Empire, moved westwards and took over the territories of Varduli and Caristii. Gómez Moreno, Sánchez Albornoz and others came to the conclusion that these tribes were not Basque-speaking, arguing that no Basque names appear in the Roman epigraphy of these territories. These were the fathers of the theory of 'late Vasconisation'.

A very minority theory, which was given little importance in the academic world. But in 2011 it gained momentum and took a new leap: the Vascones were not Basque-speaking either. The south of the Pyrenees was Basque-speaking in the early Middle Ages by the Aquitanians. This is the thesis of Joseba Abaitua and Mikel Unzueta, disseminated and popularised by Alberto Santana's 2014 documentary.


The theory of 'late Euskaldunisation'. The supposed evidence they offer is the same as that of the classical theory: almost no Basque in the epigraphy and toponymy of these territories. Coincidentally, shortly before, in 2008, a committee declared the 'exceptional graffiti' of Iruña-Veleia, among which there are many words and phrases in Basque, to be false. And although late Euskaldunisation does not appear directly in the reports of the committee members, the issue had a strong presence in social networks. The argument is very simple: if in Alava, as in all of western Basque land, Basque was not spoken, how could so much Basque appear in Iruña-Veleia? Therefore, the graffiti are false.

Martín Almagro Gorbea, 'Perpetual Antiquarian' of the Royal Academy of History, became one of the main supporters of the theory. It should be made clear that there are no historical documents, nor archaeological remains or anything to suggest an invasion by Vascones or Aquitanians. It is also worth remembering that in the South Basque Country, a large number of grave stones and tombstones with Basque names have been found, at least twenty in the West (plus the 50 graffiti from Iruña-Veleia) and another forty in Navarre, Soria and Aragon. The Hand of Irulegi was the latest discovery. As far as toponymy is concerned, there are also numerous Basque place names in both the west and east of southern Euskal Herria.

## 10.2. Ponentzia euskeraz / Ponencia en castellano a continuación / Presentation

### a) Teoriaren aitzindariak

Barandiaran, Tovar, Caro Baroja, Mitxelena, Menendez Pidal eta XX. mendeko ikerle handi ia guztiak bat zetozen: Akitaniako tribuez eta baskoiez gain, euskaldunak ziren barduliarrak eta Karistiarrak. Autrigoiekin zalantza zegoen, eta uste zen batzuk euskaldunak izango zirela eta beste batzuk zeltak-edo. Errioxa aldeko beroiez ere zalantza berdintsua zegoen. Iruditzen zaigu Antonio Tovarren mapa honek ongi ilustratzen duela orduko aditu gehienen iritzia.



A.Tovar. *Lo que sabemos de la lucha de lenguas en la Península Ibérica*(1968)

**Manuel Gómez Moreno**(1870-1970). Granadan jaiotako historialari eta arkeologo espainiarra. iberieraren deszifratzaile nagusizat hartzen da. 1920ko hamarkadan nahiko aurreratuak zituen lanak, nahiz eta ez zituen bere ondorioak argitaratu 1943ra arte, *La escritura ibérica* obraren bidez. Gure gaiari dagokionez, hara zer idatzi zuen 1925ean, iberieraren sekretuak deskubritzen ari zen garaian.

“Las modernas provincias vascongadas, con el distrito de Estella en Navarra, no varían de sus colindantes occidentales por el aspecto de las estelas votivas y funerarias, símbolos, nombres, etc. Sobre todo la nomenclatura personal admite comparaciones de valor definitivo, probatorias de que allí vivían gentes de raza cantabro-astur, sin el más leve rasgo de vasquismo perceptible. Es, por consiguiente, seguro que tan solo después de la época romana sobrevino un corrimiento de vascones allá, como también para Gascuña, hechos documentados muy bien por las crónicas francas y godas en los siglos VI y VII”.

Beraz, baskongadetan eta “en el distrito de Estella” bizi zirenak “gentes de raza cantabro-astur” ziren, “sin el más leve rasgo de vasquismo perceptible”. Eta horren froga omen da ez dela agertzen hilarri edo aldareetako idazkUNETAN euskal izenik edo hitzik. Lizarrerriko euskal izenik ezari dagokionez, barkatu dakioke beharbada ahoa hainbeste zabaldu izana, harrezkerokoak direlako aurkikuntza gehienak: *Edsuri* (Urbiola), *Larrahe* (Mendigorría), *Errensae* (Larraga), *Itsacurrine* (Izkue), *Losa* (Zirauki), *Selatse* (Barbarin), *Urde* (Muzki), eta apur bat ekialderagoko *Agirseni* (Tafalla), *Ummesahar* (Lerga), *Lacubegi* (Uxue).

**Adolf Schulten** (1870-1960). Arkeologo, filologo eta historialari alemana; bizitza gehiena Espainian eman zuen eta penintsulari lotutako gaietz egin zituen ikerketa garrantzitsuenak. *Las referencias sobre los Vascones hasta el año 810 después de J. C.* artikulua argitaratu zuen 1927an RIEVen. Bertan, autore zaharretan, erromatarretan batez ere, bila daitezkeen baskoien aipamenak ekartzen eta komentatzen ditu zehaztasun handiz. Ondorio gisa, zera dio:

“Alrededor del año 580 desp. de J. C. los Vascones se hallan además en posesión de *Alava*(con Vitoria), y probablemente también de *Vizcaya* y de *Guipúzcoa*, donde residen todavía en la actualidad. En el período comprendido entre el año 150 y 580, por consiguiente, se han verificado nuevas conquistas, las cuales se hicieron a costa de los Várdulos, Autrigones y Caristios”.

Ez du esaten barduliarrak eta abar zeltak zirenik edo euskaldunak ez zirenik, baskoiek konkistatu zituztela baizik. Konkistatu zituztela esateko oinarri bakarra, 580tik aurrera *baskoi* izenez agertzen direla EH mendebaldeko biztanleak agiri idatzietan. Horretarako, kronika bisigotikoak dira bere oinarri bakarra, eta urte hori zehazteko, Leovigildok *Vitoriaco* fundatu omen zuen urtea, hau da, hau da, Vitoria-Gasteiz, ustez.

**Claudio Sanchez Albornoz**(1893-1984). Historialari eta politikari espainiarra. Errepublikako ministro kontseiluaren presidente izan zen atzerrian, 1961-72 epean. Espainiartasunaren aldarrikatzaile sutsua, ezinikusi berezia zien euskal abertzaleei, oso nabarmen geratzen den gauza bere *España, un enigma histórico* (Buenos Aires, 1956) obran. Zera dio, besteak beste, esku arteko gaiaz:

“La entrada de los vascones en tierras de várdulos y caristios acaeció —no vacilo al afirmarlo— durante el período de anarquía que siguió a la caída del poder romano en España. [...] Al entrar en Euzcadi empujaron hacia Castilla a una parte de los várdulos y caristios; algunos se acogieron a los montes —los moradores de Tulonio, ciudad de la llanada de Álava, se refugiaron en la sierra a que dieron nombre— y los que permanecieron en sus antiguas sedes fueron inundados de vasquismo”.

## **b) 2006: teoría berpizten dute Iruña-Veleiako aurkikuntzen harira**

---

- Teoria oso minoritarioa, oso onarpen txikia zuena mundu akademikoan.  
2006. Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak aurkezten dira. Interneten, Celtiberia.net-en eta beste blog batzuetan, kanpaina gogorra faltsutasunaren alde; tartean batzuek gogorazten dute euskalduntze berantiarra. Arrazoiketa oso sinplea da: Araban ez bazen euskaraz egiten, nola agertuko dira hainbeste euskarazko idazkun?
- 2008, batik bat EHUko kidez osatutako Batzordeak faltsutzat jotzen ditu. Beren txostenetan ez da euskalduntze berantiarren aipurik.

**Martin Almagro Gorbea** (Barzelona 1946). Real Academia de la Historia-ko “Anticuario Perpetuo”a.

“Los hallazgos de Iruña-Veleia son una broma o una estafa. Se intentaba demostrar que había gente que hablaba vasco donde no se podía y, además, una lengua moderna que era imposible que se hablara en la Antigüedad” (El Correo 2008). “Se trata de un yacimiento celtibérico romano. Veleia es el nombre prerromano de un ‘oppidum’, una ciudad fortificada indígena, que se romanizó. [...] Por lo que hoy sabemos, el vasco en época prehistórica no se hablaba en el País Vasco, sino en el Pirineo y en Aquitania. Y es muy interesante que justo se invente Veleia para apoyar una tesis que científicamente desmienten los nombres de los ríos u otros datos” (ABC 2009).

Baina hurrengo izango da XXI. mendeko lehensaio elaboratua. Eta aldaketa sakona dakar: ez omen ziren baskoiak Mendebaldea euskaldundu zutenak, akitaniarrak baizik. Lehenik baskoiak euskaldundu zituzten eta gero beste guztiak. Terminologian ere berrikuntza, *vasconización/baskoitze* indargabetuta

geratzen da eta hemendik aurrera *euskaldunización/euskalduntze* esan behar da (gaztelaniaz idatzita dagoen artikuluan “*aquitанизación* o *euskerización* (o también *vasquización*)”, diote.

**Joseba Abaitua** eta **Mikel Unzueta**: “Ponderación bibliográfica en historiografía lingüística. El caso de la ‘vasconización tardía’ (Oihenart 2011).

“Por su amplia difusión, utilizaremos el término “vasconización” para describir este fenómeno de desplazamiento de la lengua vasca –desde su lugar de procedencia en el Pirineo occidental hacia el suroeste–, aunque con rigor habría que hablar de *aquitанизación* o *euskerización* (o también *vasquización*). Porque entendemos que, de manera segura, el etnónimo “vascón” solo comenzó a asociarse con la lengua vasca en época altomedieval (siglos VI-VIII). Durante los siglos precedentes, los vascones –de quienes informan las fuentes grecorromanas– exhibían de manera predominante rasgos lingüísticos de tipo celtibérico (y solo exigüos indicios de vasquidad)”.

Beraz, baskoiak ez ziren euskaldunak. Barandiaran, Mitxelena, Gorrochategui eta besteak oker zeuden.

### c) Bazterrak astindu dituen dokumentala (ETB, 2014)

**Alberto Santana** eta **Joseba Abaitua**. *Vaskoniako historia bat. Euskalduntze berantiarra*.



Baina aipaturiko artikulua oharkabean igaroko zen ziur asko handik urte gutxira argia ikusi zuen dokumentalagatik izan ez balitz. Donostiako Zine Festibalean aurkeztu zen foko guztiak begira zituela. Gero, behin eta berriz emango zuen Euskal Telebistak euskaraz eta gazteleraz. Hona hemen Alberto Santanaren aurkezpen-hitz batzuk:



"En Álava, Bizkaia y Gipuzkoa no se encuentran testimonios en euskera anteriores a la Edad Media. Cuando decimos no se encuentra, se encuentra cero, cero". Esataria: “Otra de las constataciones es que los nombres no descriptivos de los montes y ríos principales no son euskaldunes”. Santana: "El río Deva, los ríos Oka, sin duda el río Nerva o Nervión, los montes Amboto o Gorbea, no significan nada, son inexplicables desde el euskera. Y son nombres, sin embargo, que se explican bien y se entienden muy bien desde las lenguas celtas”.

Ez da egia inondik ere Santanak esaten duena, eta banan-banan ezeztatu daitezke haren baieztapenak. Baina hurrengo bi mapekin konformatuko gara.

**d) Berantiarren argudio bakarra: orduko epigrafian eta toponimian ez dela izen euskaldunik Hegoaldean**



**e) Santana eta beste berantiarren ideia aldakorrak**

1.- Migrazio handi bat egon zen Akitaniatik Nafarroara, eta handik mendebaldera. Eta aurrez zeltaz edo latinez hitz egiten zuten herrialdeak euskaldundu zituzten. (2011-2014).

2.- Euskara prestigio handiko hizkuntza zen, eta baskoiek ikasi eta bere egin zuten, eta gero Mendebaldean zabaldu.

3.- “Rusticani”ek, Inperioak galtzadak zaintzeko zituzten tropa lokalek, inperioa erortzean elite politiko-militar bihurtu ziren, eta euskaldundu egin zuten Hegoaldea. (2016).

#### **f) Irulegiko Eskua agertu ondoren, teoria birregokitzeko saiakera. Martinez Areta. “Euskalduntze berantiarra 3.0.” (2023)**

Aurrez ere egingo ei zen agian baskonieraren familiako hizkuntzaren bat Hegoaldean, baina galdu egin zen erromatarkuntzarekin, Hispaniako hizkuntza guztiak bezala. Hispania osoa latinizatu omen zen.

“la municipalización de la *civitas pompelonensis* comportó la integración de sus élites indígenas y la eventual latinización del territorio. ¿Cómo explicar, entonces, la emergencia del vigoroso euskera histórico en la Alta Edad Media en Navarra (y otras regiones vecinas)? Obviamente, habría que postular un movimiento poblacional de aquitanos que, en algún momento del Bajo Imperio o de la Tardoantigüedad, euskerizase la Cuenca de Pamplona” (Fontes 2023, 634-635).

#### **g) Teoriaren ondorio “geopolitikoak” (isilpekoak edo agirikoak)**

### **Euskaldunizar a la fuerza**

**La recuperación del euskera y la construcción nacional ha exigido el sacrificio laboral de miles de personas**

**José Luis Barbería. El País Madrid 24 SEP 2015**

“En lo que se refiere, pues, a una parte del territorio vasco no estaríamos asistiendo a un proceso de reeuskaldunización, de recuperación de la lengua perdida, sino de euskaldunización a secas. ¿Tiene sentido educativo, social, político, económico la euskaldunización masiva de la sociedad?”.

#### **Mezu ezkutua**

Euskaldunak Hegoaldearen inbaditzaileak zarete. Agian genozidak ere bai, nola esplikatzen da bestela hain lurralde zabala euskalduntzea hain denbora gutxian? Beraz, zer zilegitasun duzue herrialde horren euskalduntzea aldarrikatzeko?

#### **h) Ondorio orokorrak**

1. Ez dago aztarna idatzirik, arkeologikorik edo bestelakorik akitaniarren edo baskoien inbasio bat defendatzeko
2. Euskal Herri Hegoaldean latinez edo erromantzez berba egiten bazen, ez da sinesgarria baskoiek edo akitaniarrek euskara inposatu ahal izatea (ordurako hizkuntza zeltak galduta zeuden aspaldi).
3. Ugari dira euskarazko aztarna epigrafikoak eta toponimikoak Hegoaldean.
4. Bigarren mailako zenbait ikerlek defendaturiko teoria minoritarioa izaten jarraitzen du, nahiz eta ikaragarritzko hauspoa jaso duen euskal telebistako dokumentalaren bidez.
5. Nabarmena da teoriaren zama eta asmo politikoa nahiz eta bultzatzaileek “ZIENTZIA”ren izenean dihardutela aldarrikatu, eta beharbada sinetsi ere bai.



### 10.3. Ponencia en castellano

#### a) Los pioneros de la teoría

Barandiaran, Tovar, Caro Baroja, Mitxelena, Menéndez Pidal ..., es decir, casi todos los grandes investigadores del siglo XX estaban de acuerdo: además de los Vascones y las tribus de Aquitania, hablaban euskera Várdulos y Caristios. Existían dudas sobre los Autrigones y se pensaba que podrían ser poblaciones mixtas, o sea, hablantes de euskera y celta, así como bilingües. Sobre los Berones de La Rioja existían las mismas dudas. Nos parece que este mapa de Antonio Tovar ilustra bien la opinión de la mayoría de expertos de la época. (Ver mapa supra)

**Manuel Gómez Moreno** (1870-1970). Historiador y arqueólogo español nacido en Granada. Es considerado como el principal descifrador del íbero. Sus trabajos estaban bastante avanzados en la década de 1920, aunque no publicó sus resultados hasta 1943, por medio de su obra *La escritura ibérica*. Respecto al tema que nos ocupa, he aquí lo que escribió en 1925, cuando descubría los secretos de la lengua ibérica

“Las modernas provincias vascongadas, con el distrito de Estella en Navarra, no varían de sus colindantes occidentales por el aspecto de las estelas votivas y funerarias, símbolos, nombres, etc. Sobre todo la nomenclatura personal admite comparaciones de valor definitivo, probatorias de que allí vivían gentes de raza cantabro-astur, sin el más leve rasgo de vasquismo perceptible. Es, por consiguiente, seguro que tan solo después de la época romana sobrevino un corrimiento de vascones allá, como también para Gascaña, hechos documentados muy bien por las crónicas francas y godas en los siglos VI y VII”.

Por tanto, los que vivían en las Vascongadas y "en el distrito de Estella" eran "gentes de raza cántabro-astur, sin el más leve rasgo de vasquismo perceptible". Y aduce como prueba el hecho de que no aparecen nombres ni palabras vascas en las inscripciones de lápidas o aras de esos territorios. En cuanto a la falta de nombre vascos para "el distrito de Estella", quizás se le pueda perdonar que abra tanto la boca, ya que la mayoría de los descubrimientos son posteriores: *Edsuri* (Urbiola), *Larrahe* (Mendigorría), *Errensae* (Larraga), *Itsacurrine* (Izkue), *Losa* (Zirauki), *Selatse* (Barbarin), *Urde* (Muzki), y un poco más al Este *Agirseni* (Tafalla), *Ummesahar* (Lerga), *Lacubegi* (Uxue).

**Adolf Schulten** (1870-1960). Arqueólogo, filólogo e historiador alemán; pasó la mayor parte de su vida en España y realizó investigaciones muy importantes sobre temas relacionados con la península. En 1927 publicó el artículo *Las referencias sobre los Vascones hasta el año 810 después de J. C.*, en la revista RIEV. En él aporta y comenta con gran profusión de datos las referencias a los vascones que se pueden encontrar en autores antiguos, especialmente romanos. A modo de conclusión, dice:

“Alrededor del año 580 desp. de J. C. los Vascones se hallan además en posesión de Alava (con Vitoria), y probablemente también de Vizcaya y de Guipúzcoa, donde residen todavía en la actualidad. En el período comprendido entre el año 150 y 580, por consiguiente, se han verificado nuevas conquistas, las cuales se hicieron a costa de los Várdulos, Autrigones y Caristios”.

No dice que los várdulos, etc., fueran celtas o que no hablasen euskera, sino que fueron conquistados por los vascones. La única base para argumentar que fueron conquistados es que a partir del año 580 los habitantes de la parte occidental del EH aparecen bajo el nombre de Vascones en la documentación escrita. Para ello su fuente son las crónicas visigodas, y para determinar esa fecha toma como referencia el año en que Leovigildo fundó supuestamente *Vitoriaco*, es decir, supuestamente Vitoria.

**Claudio Sánchez Albornoz** (1893-1984). Historiador y político español. Fue presidente del Consejo de Ministros de la República en el exterior, en el período 1961-72. Ardiente defensor de la españolidad,

sentía un especial desdén por los nacionalistas vascos, algo que queda muy patente en su obra *España, un enigma histórico* (Buenos Aires, 1956). Veamos lo que dice, entre otras cosas, sobre el tema que nos ocupa:

“La entrada de los vascones en tierras de várdulos y caristios acaeció —no vacilo al afirmarlo— durante el período de anarquía que siguió a la caída del poder romano en España. [...] Al entrar en Euzcadi empujaron hacia Castilla a una parte de los várdulos y caristios; algunos se acogieron a los montes —los moradores de Tulonio, ciudad de la llanada de Álava, se refugiaron en la sierra a que dieron nombre— y los que permanecieron en sus antiguas sedes fueron inundados de vasquismo”.

## **b) 2006: la teoría resucita a raíz de los descubrimientos de Iruña-Veleia**

---

Una teoría muy minoritaria, que tenía poca aceptación en el mundo académico.

2006. Se presentan los grafitos en euskera de Iruña-Veleia. En Internet, tanto en Celtiberia.net como en otros blogs, se desata una feroz campaña en favor de la falsedad; y no son pocos los que se acuerdan de la vasconización tardía. El razonamiento es muy sencillo: si en Álava no se hablabasco en aquella época, ¿cómo van a aparecer tantos textos en euskera?

2008, una Comisión formada principalmente por miembros de EHU/UPV decreta que los hallazgos son falsos. En los informes no se menta la teoría de la vasconización tardía.

**Martín Almagro Gorbea** (Barcelona 1946). "Anticuario Perpetuo" de la Real Academia de la Historia.

“Los hallazgos de Iruña-Veleia son una broma o una estafa. Se intentaba demostrar que había gente que hablaba vasco donde no se podía y, además, una lengua moderna que era imposible que se hablara en la Antigüedad” (El Correo 2008). “Se trata de un yacimiento celtibérico romano. Veleia es el nombre prerromano de un ‘oppidum’, una ciudad fortificada indígena, que se romanizó. [...] Por lo que hoy sabemos, el vasco en época prehistórica no se hablaba en el País Vasco, sino en el Pirineo y en Aquitania. Y es muy interesante que justo se invente Veleia para apoyar una tesis que científicamente desmienten los nombres de los ríos u otros datos” (ABC 2009).

Pero pronto llegaría el primer trabajo importante del siglo XXI sobre el tema, aportando cambios profundos: no fueron los vascones quienes euskaldunizaron el Occidente del País Vasco, sino los Aquitanos. Primero euskaldunizaron a los vascones y luego a todos los demás. La terminología quedaba también superada, en adelante no se podría usar *vasconización/bascoitze*, y se sustituiría por *euskaldunización/euskalduntze* (en el artículo, escrito en castellano, literalmente: “*aquitанизación o euskerización (o también vasquización)*”).

**Joseba Abaitua y Mikel Unzueta**: "Ponderación bibliográfica en la historiografía lingüística. El caso de la “vasconización tardía” (Oihenart 2011).

“Por su amplia difusión, utilizaremos el término “vasconización” para describir este fenómeno de desplazamiento de la lengua vasca —desde su lugar de procedencia en el Pirineo occidental hacia el suroeste—, aunque con rigor habría que hablar de aquitanización o euskerización (o también vasquización). Porque entendemos que, de manera segura, el etnónimo “vascón” solo comenzó a asociarse con la lengua vasca en época altomedieval (siglos VI-VIII). Durante los siglos precedentes, los vascones —de quienes informan las fuentes grecorromanas— exhibían de manera predominante rasgos lingüísticos de tipo celtibérico (y solo exiguos indicios de vasquidad)”.

Por lo tanto, los vascones no hablaban euskera. Barandiaran, Mitxelena, Gorrochategui y demás estaban confundidos.

### **c) Un documental viene a sacudir las aguas (ETB, 2014)**

---

**Alberto Santana y Joseba Abaitua.** *Vasconiako historia bat. Euskalduntze berantiarra* (2014) / *Una historia del Vasconia. La euskaldunización tardía* (1916).

El mencionado artículo probablemente habría pasado desapercibido si no hubiera sido por el documental que vio la luz a los pocos años. Se presentó en el Festival de Cine de Donostia con gran boato. Luego, EuskalTelebista lo emitiría una y otra vez en euskera y en castellano. Alberto Santanapresentaba el documental con estas palabras, entre otras:

"En Álava, Bizkaia y Gipuzkoa no se encuentran testimonios en euskera anteriores a la Edad Media. Cuando decimos no se encuentra, se encuentra cero, cero". Presentadora: "Otra de las constataciones es que los nombres no descriptivos de los montes y ríos principales no son euskaldunes". Santana "El río Deva, los ríos Oka, sin duda el río Nerva o Nerviñ, los montes Amboto o Gorbea, no significan nada, son inexplicables desde el euskera. Y son nombres, sin embargo, que se explican bien y se entienden muy bien desde las lenguas celtas".

Afirmaciones que no se corresponden a la realidad, y que se pueden rebatir una a una. Pero nos conformaremos con el contenido de los mapas del siguiente capítulo. (Ver supra).

### **d) El único argumento de los tardíos: que no existen nombres en euskera en la epigrafía y en la toponimia de Hegoaldede aquella época**

---

(Ver mapas supra)

### **e) Las cambiantes ideas de Santana y de otros tardíos**

---

- 1.- Hubo una gran migración de Aquitania hacia Navarra, y de allí hacia el Oeste. Y las tribus que antes hablaban celta o latín se hicieron vasco parlantes. (2011-2014)
- 2.- El euskera era una lengua de gran prestigio, y los vascones la aprendieron, la adoptaron y luego la difundieron en el Oeste.
- 3.- Los "Rusticani", las tropas locales utilizadas por el Imperio para vigilar las calzadas y los pasos pirenaicos, que eran euskaldunes, se convirtieron en élite político-militar a la caída del Imperio, y vasquizaron el Sur de Euskal Herria (2016)

### **f) Tras la aparición de la Mano de Irulegi, intento de reajustar la teoría.**

---

**Martínez-Areta. "Euskaldunización tardía 3.0"** (2023)

Pudo haber existido una lengua de la familia del euskera al Sur de los Pirineos, pero se perdió con la romanización, como todas las lenguas de Hispania. Toda Hispania se latinizó.

"La municipalización de la civitas pompelonensis comportó la integración de sus élites indígenas y la eventual latinización del territorio. ¿Cómo explicar, entonces, la emergencia del vigoroso euskera histórico en la Alta Edad Media en Navarra (y otras regiones vecinas)? Obviamente, habría que postular un movimiento poblacional de aquitanos que, en algún momento del Bajo Imperio o de la Tardoantigüedad, euskerizase la Cuenca de Pamplona" (Fontes 2023, 634-635).

## g) Consecuencias “geopolíticas” de la teoría (ocultas y manifiestas)

---

### **Euskaldunizar a la fuerza**

**La recuperación del euskera y la construcción nacional ha exigido el sacrificio laboral de miles de personas**

[José Luis Barbería. El País](#) Madrid 24 SEP 2015

“En lo que se refiere, pues, a una parte del territorio vasco no estaríamos asistiendo a un proceso de reeuskaldunización, de recuperación de la lengua perdida, sino de euskaldunización a secas. ¿Tiene sentido educativo, social, político, económico la euskaldunización masiva de la sociedad?”.

### **Mensaje oculto**

Los vascos probablemente habéis invadido el sur de los Pirineos, quizás incluso cometiendo un genocidio. ¿Si no, de qué otra manera se puede explicar la euskaldunización de un territorio tan vasto en tan poco tiempo? Por consiguiente ¿qué legitimidad tenéis para reivindicar la euskaldunización del país?

## h) Conclusiones generales

---

1. No existen vestigios escritos, arqueológicos o de otro tipo que hablen de una invasión aquitana o vascona hacia el Oeste de EuskalHerria.
2. Si en el Sur o el Oeste del País Vasco se hablaba latín o romance, no es creíble que vascones o aquitanos pudieran imponer el euskera (para entonces las lenguas celtas ya se habían perdido hace tiempo).
3. Son numerosos los vestigios epigráficos y toponímicos euskéricos en el Sur y en el Oeste.
4. La teoría sigue siendo minoritaria, y es defendida por algunos investigadores de segundo nivel, aunque ha recibido un tremendo impulso a través del documental de la televisión vasca.
5. Es innegable el sesgo político de la teoría, a pesar de que sus promotores afirmen que su único objetivo es LA CIENCIA, cosa que no tenemos por qué dudar.